

UPV/EHUko ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia (2020)

OHIKO GALDERAK

2020/04/16an eguneratua

OHAR GARRANTZITSUA: Kontuan hartuta eskarien kopurua handia dela, egin ezazue kontsulta, mesedez, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako (aurrerantzean IAE) pertsonalarekin harremanetan jarri aurretik ohiko galderen zerrenda honetan.

Kontsultari erantzunik aurkitu ezean dokumentu honetan, eskatzaileek pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora jo ahal izango dute, "PIF deialdia" adieraziz mezuaren gaien.

Kontsulta guztiei erantzuteko, helbide elektronikoa honetara bakarrik igorri, mezuak, mesedez.

IAEren webgunean egindako agiri honen eguneratzeen berri posta elektronikoaren bidez izan nahi izanez gero, eskatzaileek pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikoan eskatu ahal izango dute; eta horretarako Izen-deitura osoa eta harremanetarako helbide elektronikoa adierazi beharko dituzte.

ESKATZAILEAREN BALDINTZAK

Titulazioaren eskakizunak:

Zer titulazioz ari da 3.1.a oinarria?

Doktorego programa batean matrikula egiteko behar den unibertsitate tituluaz ari da: masterra edo lehengo lizentziatura, baldin eta honek sarbide zuzena ematen badu masterreko ikasketarik egin beharrik gabe.

Nola egiazta dezaket masterra eskaera egiteko epearen barnean amaitu dudala?

Ez da behar.

Ezin izango dut masterra irailera edo urrira arte amaitu, aurkez dezaket eskaera orain?

Bai.

Aurkeztu behar al da masterreko ziurtagiri akademikoa?

Doktoregora sartzeko behar den ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 3.1a oinarrian azaldutakoarekin bat etorrira,

UPV/EHUUn egindako titulazioetarako izan ezik.

Zer titulazioz ari da 3.1.a.iv oinarria?

Masterrik egin gabe doktoregora sarbide zuzena ematen duten graduak: Medikuntza, Farmazia, Odontologia eta Arkitektura, besteak beste; eta master-eko edozein titulu gutxienez 60 kreditu dituen.

Eskaria aurkeztu ahal dut masterreko ikasketetan oraindik hasi gabe banago?

Ez, salbu eta zure graduko ikasketek doktoregora zuzen sartzeko aukera ematen badute.

Batez besteko notari buruzko baldintza:

Zein da 3.1.b oinarriak adierazitako baldintza betetzeko kontutan hartu beharreko batez besteko nota?

Kontuan hartuko da graduko edo lizentziatuko espediente akademikoan agertzen den batez besteko nota.

Kontuan hartuko al da masterreko batez besteko nota?

Ez, ez da kontuan hartuko baldintza hau betetzeko.

Baztertzaille al da 3.1.b oinarriak aipatzen duen gutxieneko batez besteko notaren baldintza?

Bai.

Doktorego programa:

Nola jakin dezaket doktorego programa batean matrikulatzeko baldintzak betetzen ditudan ala ez?

Zehaztuta daude 3.1 oinarriak. Zalantzarik izanez gero, Doktorego Eskolan kontsultatu ahal duzu zeure egoera, doke@ehu.eus

Oraindik ez dut doktorego programetarako matrikularik egin. Deialdi honetan parte hartu eta preinskripzioa 2020ko irailean egin nezake?

Bai.

Nahitaezkoa al da doktoregoko matrikula 2020an egitea?

Bai. Eskatzaileen erantzukizuna izango da matrikula egitea, Master eta Doktorego Eskolak jarritako epeak errespetatuz. Deialdia ebazterakoan, onuradunek eskarian adierazi duten programan egindako matrikularen gordekina agertu beharko dute. Osterantzean, ezin izango da kontratua formalizatu eta ulertuko da eskatzaileak uko egiten diola laguntzari.

Doktoregoa laguntza ekonomikorik gabe egitea ez bazait interesatzean, matrikula baliogabetu ahal izango dut?

Bai, ezesteko erabakia aurkeztuta Doktorego Eskolan, matrikulako tasak itzuliko zaizkio eskatzaileari.

Deialdi honetarako eskaera aurkez dezaket baldin eta doktorego programa batean matrikulatuta banago?

Onartu egingo dira doktorego programa bat egiten ari diren pertsonen eskariak. Kontratua, nolahi ere, amaitu egingo da onuradunak doktorego programan matrikulatuta egoteari uzten dionean.

Egiaztatu behar dut doktorego programan matrikulatuta nagoela eskaera aurkezteko unean?

Ez.

Nola matrikula naiteke doktorego programa batean?

Doktorego Eskolarekin harremanetan jar zaitezke, doke@ehu.eus, edo jarraibideak kontsultatu ahal dituzu zuzenean Doktorego Eskolaren webgunean: <https://www.ehu.eus/eu/web/doktorego-eskola/doktoregoa>

Laguntza hau eska dezaket neure bigarren doktoregoa egiteko?

Ez.

Merezimenduak:

Berritasuna. Hizkuntza ez ofizialen egutza merezimendu bezala kontuan hartuko da?

Bai. **I. eta II. Modalitateetan** 5 puntu gehienez lortu ahal izango dira.

Adierazitako puntuazioa lortzeko, hizkuntza ez ofizialen egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C2 egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu
- C1 egiaztagiria eta baliokideak: 4 puntu
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Ziurtagiri hauei dagokienean, kontutan hartuko dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailak.

Ezinbesteko baldintza da euskara jakitea deialdi honetan parte hartzeko?

II. modalitatean C1 maila izan behar da parte hartzeko, besteetarako ez. I. modalitatean merezimendu gisa balioetsiko da eta era honetara puntuatuko da:

- C2 mailaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- C1 mailaren egiaztagiria eta baliokideak: 4 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.

III. eta IV. modalitateetan merezimendutzat kontuan hartuko zaie frantses ezagutza maila nazionalitate espainiarra duten eskatzaileei eta euskara edo gaztelaniaren ezagutza maila nazionalitate frantsesa duten eskatzaileei. Ikusi 9.3.4 Oinarria.

Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk. Ez dira onartuko, era berean, eskaera epearen azken egunetik aurrera lortutako ziurtagiriak.

Non kontsultatu ditzaket onartutako euskara tituluaren arteko baliokidetzak?

Esteka honetan:

http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/tituluen_baliokidetzaz/eu_titbalio/tituluen_baliokidetzaz.html

Atxikipen zentroa:

Tesirako laguntza hau eska liteke UPV/EHUtik kanpoko zentro batean egiteko, hala nola, enpresa batean edo unibertsitatetik kanpoko ikergune batean? Ez.

TESI ZUZENDARIAREN BALDINTZAK

Zuzendu lezake nire tesia UPV/EHUREKIN loturarik ez duen pertsona batek?

Bai, baina kasu horretan nahitaezkoa da bi zuzendari izatea. Horietako batek UPV/EHUKoa behar du izan eta bietako batek eskarian adierazitako doktorego programako irakasleen artean egon behar du eskaera egiteko unean.

Nola jakin dezaket proposatu dudan tesi zuzendariak UPV/EHUKO doktorego programa batean ari dela?

Esteka honetan ikusi ahal duzu:

https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdep_osgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza

Nola egiten da proposatutako zuzendariak tesiaren zuzendari-kidetzat

eskatzeko tramitea, doktorego programako irakasle ez direnean?

Tramite hau egiteko jarraibideak esteka honetan kontsulta daitezke:

<http://www.ehu.eus/eu/web/ordenacion academica/programatik-kanpoko-irakasleen-tesi-zuzendarikidetzat1>

Zuzendari ezberdinak hauta ditzaket deialdi honetako modalitateetako bakoitzean parte hartzeko?

Ez.

Zuzendari berak eskari bati baino gehiagori eman ahal dio abala deialdi honetan?

Bai, baldin eta horietako bat III. edo IV. modalitateetako bada. Ez da posible I. eta II. modalitateetarako.

Zuzendaria eskari batean zuzendari gisa eta beste batean zuzendarikide gisa agertzen bada, abala eman diezaioke eskaera bati baino gehiagori?

Ez. Deialdiak ez du bereizketarik egiten zuzendarien eta zuzendarikideen artean. Biek dute erantzukizun bera eta, beraz, eskari bakarrean ager daitezke.

Bateraezina al da tesi zuzendari batentzat deialdi honetan eskaera bat aurkeztea aurreko urteetan doktorego aurreko deialdietan emandako laguntzekin?

Ez. 2020ko deialdian aurkeztutako eskaerak besterik ez dira joko bateraezintzat.

Berritasuna. Nola egiazta dezaket nire tesi zuzendarietako batek plaza iraunkorra duela eta dagoeneko defendatuta dauden bi doktorego tesi edo gehiago zuzenduta dituela eta besteak lanaldi osoko kontratua duela UPV/EHUREKIN eta defendatu den doktorego tesi bat baino gehiago zuzendu ez duela?

Ez da bestelako agiririk aurkeztu behar, 9.1.6. edota 9.2.6 Oinarrietako merezimenduei buruzko erantzukizunpeko aitortpenaz gain. Ofizios egiaztatuko da merezimendu hau betetzen den.

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zenbat kontratu eskaintzen dira?

Lehenengo modalitatean 50 kontratu esleituko dira, 7 II. modalitatean, 5 III. modalitatean eta 3 IV. modalitatean.

Zer-nolako ezaugarriak dituzte eskaintzen diren kontratuak?

Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluari jarraitzen zaizkio eta beren helburua doktorego tesiak egitea da. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da, beste hiru urte gehiagotarako.

Noiz hasiko litzateke nire kontratua?

Kontratuak 2021ko lehen hiruhilekoan formalizatuko lirateke, beti ere egoerak hori ahalbidetzen badu.

Kontratu hau bateragarria al da beste batzuetako indarraldiarekin?

Ez.

Eskaera aurkez dezaket orain baldin eta lehenago urtarrilaren 27ko 6/2006 Errege Dekretuak araututako Prestakuntza Bidean dauden Ikertzaileen Estatutuak ezartzen duen doktorego aurreko beka bat eskuratu banuen?

Ez.

ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaria aurkez dezaket Ikertu Online aplikazioaren bidez?

Ez.

UPV/EHUraino joan behar al dut eskaria aurkeztera?

Ez. Eskatzaileak posta zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu ahal du eskaria. Horretarako, dokumentazioa gutun azal ireki batean eraman beharko du eta posta bulegoko langileek eskaeraren lehenengo orria zigila dezaten, dokumentazioaren aurkezpen data adieraziz. Igorpen era honi "administrazio igorpena" deritzogu. Ondoren, dokumentazioa posta

ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko
Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza
(Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)*

Familiartekoren batek aurkez dezake eskaera nire ordeztu?

Bai.

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia?

Esteka honetan kontsulta daiteke erregistro bulegoetako buruzko informazio guztia honako: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Zer ordura arte egongo dira irekita erregistro bulegoak eskaerak aurkezteko epearen azken egunean?

Erregistro bulegoak 13:00etan itxiko dira egun horretan.

Zein izango da IAEk eskatzaileen harrerarako izango duen ordutegia, eskariak aurkezteko epearen azken egunean?

Eskatzaileentzako harrera ordutegia 14:30etan amaituko da.

IAEko pertsonalak erregistratu ahal du nire eskaria?

Ez. Eskariak erregistro moduan jarduteko gaituta diren tokietan aurkeztu behar dira: UPV/EHUren erregistro bulegoak eta postako edozein bulego.

DOKUMENTAZIOA

Eskari orria:

Ba al da eskaera egiteko formularioa zuzentzerik?

Ez. Eskaera egiteko formularioa eskaeraren zatitza eta gutxieneko edukitza hartuko da eta ezin izango da zuzendu, hau da, dokumentua behar bezala osatua ez badago, eskaera hori baztertuko da.

Posible litzateke formularioa sinadura originalik gabe aurkeztu eta sinadurak akatsak zuzentzeko epean aurkeztea?

Ez. Ezin izango da formularioaren aspекturik zuzendu.

Eskaneatutako sinadurak aurkeztu ahal ditut eskaria egiteko formularioan paperezko euskarrian?

Ez da inola ere eskaneatutako sinadurarik onartuko, paperean aurkezteko eskatzen diren dokumentuetan.

Zer da sinadura digitala?

Honako era hauetako batean egindako sinadurak dira digitalak: NAN-e, administrazio publikoek aintzatetsitako ziurtagiri elektronikoa eta abar.

Beharrezkoa al da jatorrizko sinadurak aurkeztea PDF formatuko formularioan?

Ez. Jatorrizko sinadurak paperezko euskarrian egindako formularioan agertu behar dira, ez beste inon.

Nire eskaria bazterrean geratuko al da, zuzentzeko aukerarik gabe, baldin eta dokumentu guztiak epearen barruan eman ez badituz?

Ez, baldin eta gutxienez eskaera egiteko formularioa, guztiz osatua, epearen barruan erregistratzen bada.

Zer hizkuntzatan aurkeztu behar dut neure eskaria baldin eta I. eta II. modalitateetan batera parte hartzeko aukera egiten badut?

I. eta II. modalitateetara aldi berean aurkeztuko diren eskatzaileek gaztelaniaz ere aurkeztu ahalko dute eskaria.

Deialdian adierazten da euskaraz aurkeztutako eskaerak Euskararen arloko Errektoreordetzak itzuliko dituela ingelesera edo gaztelaniara. Neure itzulpena aurkez nezake?

Bai, CD, DVD edo pendrive batean atxiki ahal izango duzu.

Zer formatutan entregatu behar dira dokumentuak?

Eskaera egiteko formularioa paperean aurkeztu beharko da, eskuz sinaturik edo ziurtagiri digitalen bidez. Era berean, 9.1.6. edota 9.2.6 Oinarrietako merezimenduei buruzko erantzukizunpeko aitortpena ere paperean aurkeztu beharko da. Agiri guztiak, formularioaren kopia bat PDF-n eta WORD-en barne, CD, DVD edo pendrive batean aurkeztu beharko dira eskariaren paperezko inprimakiaren batera, eskaera aurkezterakoan.

Zer kasutan aurkeztu behar da ANECAren batez besteko notaren ziurtagiria?

Eskatzaileak ikasketak atzerrian egin dituen kasuan bakarrik eskatuko da. Ziurtagiria honako esteka honen bitartez eska daiteke: <http://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/gestion-titulos/estudios-universitarios/titulos-extranjeros/equivalencia-notas-medias.html>

Curriculum Vitae:

Zer formatutan aurkeztu behar da CVa?

Curriculum vitae ingelesez aurkeztu ahal izango da FECYT eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen ministeritzak ikertzaileen eskura jartzen duten CVN formatoan. Editor-era hurrengo estekaren bitartez jua daiteke: <https://cvn.fecyt.es/editor/index.html?locale=spa#INDEX>

CVaren eduki osoa itzuli behar al dut ingelesera?

Ez. Errespetatu behar dira jatorrizko hizkuntzan erakundeen izenak, argitalpenen tituluak, proiektuen tituluak, kongresuak, etab.

Aurkeztu behar da tesi zuzendariaren CVa?

Ez.

CVan alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzeko dokumentazioa agertu behar dut?

Ez da beharrezkoa fase honetan hori egitea. Areago, aurkeztutako eskarien bolumena kontuan hartuta, eskatu egiten zaie eskatzaileei 6. oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain ez aurkezteko

deialdian eskatzen ez den agiririk, ez baita balioetsiko.

Merezimenduak:

Aurkez dezaket eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat?

Baldin eta graduko ikasketen espediente akademikoaren bidez egiaztatzen bada, besterik ez. Honelakoetan, 2020ko irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango da, hau barne.

Euskararen jakite mailaren ziurtagiria agertu behar al da euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan?

Bai, kasu honetan ere, eskatzaileak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak behar dute izan ala konpulsatuak?

Ez, PDF formatuan eskaneatutako kopiak eman ahal dituzu.

Zer formatutan aurkeztu behar ditut II. modalitateko euskarari buruzko ekarpenak?

PDF formatuan CD, DVD edo pendrive barruan. Bi karpeta bereizitan sailkatu behar dira, honetara izendatuta:

- Eskatzailearen merezimenduak
- Zuzendarien merezimenduak

Zertzu merezimendu balioetsiko dira II. modalitatean euskarari loturiko ekarpen gisa?

Eskatzailearen nola zuzendariaren merezimenduak balioetsiko dira:

- Eskatzailearen merezimenduak: C2, euskarazko GRAL edo/eta MAL.
- Doktorego tesiaren zuzendari-kideen merezimenduak: C1 edo C2, euskarazko tesien zuzendaritza, euskarazko ekoizpen zientifikoa.
- Euskarazko ikerketa proiektuaren hizkuntza kalitatea.

Ikerketarako Etika Batzordearen txostena:

Ikerketarako Etika Batzordearen aldeko txostena aurkeztu behar dut eskaerarekin batera?

Ez, baina ezinbestekoa da eskaeran zeure tesi proiektuari dagokion aukera marka dezazula. Laguntza lortuz gero, kontratua sinatu aurretik aurkeztu beharko duzu txostena.

Non eska dezaket Ikerketarako Etika Batzordearen txostena, behin aurkeztu behar dudala ziurtatzen didatenean?

Tramite hau online egin ahal da webgune honen bidez:

<http://www.ehu.eus/eu/web/ceid/home>

DEIALDIAREN TRAMITAZIOA

Noizko aurreikusten da deialdia ebaztea?

Aurreikusten da deialdia 2020ko urtarriletik aurrera ebatziko dela.

Zenbat eskari aurkez daitezke?

Bataz beste, urtero 339 eskaera aurkezten dira I. eta II. modalitateetan, 10 III. modalitatean eta 11 IV. modalitatean.

Zer prozedurari jarraituko zaio nire eskaria?

Lehenengo eta behin, aurkeztutako eskari guztiak aztertuko dira eta balioetsiko diren eskari onetsi eta ezetsien behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Zuzen litezkeen errakuntzarik luketen eskari ezetsiek 10 lanegunen epea izango dute errakuntza hauek zuzentzeko. Gero, behin betiko zerrenda argitaratuko da eta onartutako eskariak ebaluatuko dira.

Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziora onartu eta baztertutako eskarien behin behineko zerrenda argitaratu dela?

IAEk jakinaren ganean jarriko ditu eskatzaileak eskaria egiteko inprimakian harremanetarako adierazi den posta elektronikoen bidez.

Hala ere, zerrenda webgunean argitaratuta, legeak agindutako jakinarazpen ondorio guztiak izango ditu, eta IAEk ez du bere gain hartuko adierazitako helbide

elektronikoetan ez jaso izana eta eskatzailearen obligazioa izango da aldian-aldian deialdiaren inguruko informazio berria jaso ote duen egiaztatzea.

<http://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-doktoratu-aurreko-laguntzak>

Aurreikusita al dago hautagaiekin elkarrizketa pertsonalik egitea?

Ez. Deialdi honetan ez da elkarrizketa pertsonalik egingo hautagaiekin.

EBALUAZIOA

Nola kalkulatu da akademi espedientearen batez besteko nota ponderatua

Oso kontutan izan behar da berori dela ebaluazioan puntuaziorik handiena daraman irizpidea, baina honen kalkulatzeko ez da hiruko erregelarik erabiltzen.

Eskatzaileak, atal honetan, izango duen azken puntuazioa lortuko da deialdiaren 9. Oinarrian zehaztu den formula matematikoa aplikatuz.

Formula horretan aplikatzen diren balioak deialdiaren webgunean aurkitu ahal izango dituzue.

Nork ebaluatzen ditu eskariak zientzia eta teknikaren ikuspuntutik (2. eta 3. irizpideak)?

Eskariak balioetsiko ditu Ikerkuntzarako Estatu Agentziaren Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatalak (lehengo ANEP), AEI Zientzia eta Berrikuntza ministeritzaren menpe dago.